

MIGEL ARRUTZA EGIA

Euskaltzain laguntzaile hau ere, il zitzaigun 1966 gnko. maiatzaren 12-an. Bilboko seme izanik, euskalduna zan mutikotan. Geroago, aita il, ta amagandik berezi bizi izan baitzen zenbait urtetan, euskera ahanzi egin zitzaion; ta ogei urte zituela, berriro saiatu arbasoen mintzoa ikasten. Gero, ilarte guztian, euskal-irakasle izan zan. Aldi batean, Bilboko bigarren mailako Instituto delakoan, Bizkaiko Diputazioaren laguntzapean. Gerra ondorean, bere etxean, batipat.

Langilea izan zen euskal-alorrean, eta hainbat idazlan agertu zituen egunkarietan eta aldizkarietan, bizkaieraz geihenbat, ta azkenaldian, izneurtuak ere bai. «Euskal-ikasbide laburra» gertu zuen, izkera bizitik zuzenean ikasteko asmatua. Itzulpen batzuek ere, egin zituen. «Arrugain» izenordea erabili ohi zuen. Irurogei ta amasei urte zituela joan zitzaigun. Goian bedi.

E. Erkiaga

ZIRILO ARZUBIAGA (1874-1966)

1966 urteko uztailaren 14-an hil zan Zirilo Arzubiaga apaiz jauna.

Otxandion jaioa zan 1874 urteko ekainaren 22-an.

Zorrontzan ikasi zuen latina fama aundiko apaiz batekin, don Jorge, arabarra bera. Billerlekoa. Goizean eskribau bati laguntzen omen zion bizimodua ateratzeko eta arratsaldetan egin ikasketak. Hala iru urtetan. Gero Gazteizeko Seminaria joan zan.

Meza berria Otxandion eman zuen eta Resurrezio Maria Azkue jaunak egin zuen sermoia egun hartan. Felipe Arrese Beitia-k bertsoak kantatu zituen.

Karanja-n urte bi egin zituen San Esteban-en erretore.

Orozko-n beste urte pare bat San Martin eleizan.

Zorrontzara joan zan andik 1903 urtean don Jorge-ren ordez (orduan huelga aundi bat omen zegoen Bilbon eta trenak ezomen ziran Zorrontzara eltzen eta oinez joan omen zan menditik, mutil bat lagun zuela) eta 1937-rarte egon zan bertan. *Jaungoikozale* sortu zanean sekretario egin zuten eta denbora guztian, 1937 urtean Ingalterra-ra joan zan arte, lanean ekin zion.

Ingalterra-tik ostera egin ondoan erë nolabait lan berean iraun zuen hil arte, Bilbon Santa Klara monjen kapelau zala.

Dato guzti hauek berari galdetu nizkion bizi zala. Etzitzaion gustatzen bere izenik ager zedin eta eznituela orduan jakineraziko esan nionean eman zizkidan.